

Izen-deiturak: Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

hits	Distira ahul bat zen, une batez arrastiriko argitasun hitsa islatu zuena.
heineko	Eta, tira, aitonaren heineko xeblekeria litzateke hura.
mokor	Lur mokorren artean, burezur horiska batek lurrez betetako begiez so egiten zion.
haizatu	Eguzkienenan emandako aste haietan burutik haizatzen saiatu zen izugarrikeria hura.
lipar	Lipar batez telefonoak isila besterik ez zuen transmititu.
afera	Aferaz pentsatzen zuen aldi bakanetan denetariko arrazoi ilunak bururatzen zitzaizkion...
giltzarrapo	Gelako ate gehienak giltzarrapoz itxita zeuden.
setati	Bere isiltasun setatian babesten zen. Ez zuen ezer erraten hitz egiteak beldurra ematen ziolako.
maiztua	Armairu ilun zabalaren txanda: barne arropak, atorra maiztuak , jaka pare bat, modaz pasaturiko praka batzuk...
aszetiko	Haurrak keinu aszetiko batean elkartzen zituen arrosario batez bilduriko eskuak.
zahato	Argazki batean, aitonak zahatotik edaten zuen.
lanbro	Itxaropena zuen eguzkiaren printzek lanbroa bezala suntsituko zituztela pentsamendu beltz haiek guztiak.
indusketa	Arkeologia indusketetako aztarna kaltegabeen antza hartu zion Anek.
pikotx	Pikotxean jarri eta gertuagotik aztertu zuen.
lohitu	Ez zitzaion ondo iruditzen haren oroitzapena lohitzea ...
pipi	...eta pipiak jandako bi aulki zaharrez aparte; erabat hutsik zegoen.
mizpirak	Azkura sudur mizpiretan . Saguen korrika arinak.
oldartu	Eskaileretara oldartu baino lehen, goratu egin zuen irratiaren bolumena.
sunda	Hala ere, hautsa zegoen bazterretan, eta zoko sunda arin bat sumatzen zen intsentsu lurrinaren azpian.
aldarte	Anek berehala ulertu zuen neskaren aldarte aldaketa.

Izen-deiturak: Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

arrastiri	Distira ahul bat zen, une batez arrastiriko argitasun hitsa islatu zuena.
sumatu	Hala ere, hautsa zegoen bazterretan, eta zoko sunda arin bat sumatzen zen intsentsu lurrinaren azpian.
hizpide	Trebetasun aparta erakutsi duzu hizpide deserosoa saihesten eta nire kontra bihurtzen!
akitu	Iluntzean, akiturik , sukaldean eseri ziren biak tea hartzera.
karraska	Eguzkienearen zurezko egitura astunak karraska sekretuak egiten zituen, baserri zaharra hausnarreanari balitz bezala.
kankailu	Zu bezalako kankailu bat lan hori egiteko gauza bazen...
argindar	Beharko zituen arropak aukeratuta, Anek ura eta argindarra moztuta zeudela egiaztatu zuen.
teink egon	Frantsez poliziaren aurpegiko giharrak teink zeuden.
uher	Putzuetako ura uher dago oraindik.
zabukada	Zabukaden artean, Anek irudipena zuen basoak arnasari eusten ziola.
zarpail	Bere kamaina zarpailaren ertzean eseri zen.
maki	Naziek sekulakoak egin zituzten eskualde honetan, maki aski bihurria baitzebilen hemen.
usnatu	Bere jabearen atzetik, txakurrak buztana astinduz alde egin zuen, Aneren eskuak berriz ere usnatuta ...
lizun	Lizun zerrenda luzeak ikusi zituen horma sendoetan, eta izotz burruntzia teilatuta hegaletik dilindan...
burruntzi	Lizun zerrenda luzeak ikusi zituen horma sendoetan, eta izotz burruntziak teilatuta hegaletik dilindan...
zigarrokin	Hondakin pilak bazterretan, botilak, zigarrokinak , aldizkari pornografiko margulduak.
sorgortu	Hankak sorgortzen zizkion izuari aurre eginez, oin puntetan atera zen aretotik.
sen	Sen hutsez, pentsatu gabe...
kedar	Haren aurpegitxo biribila kedarrez belzturik zegoen...
arranditsu	Autoa utzi eta eraikin arranditsura hurbiltzen ari zela, Ane perlesiaturik gelditu zen.

Izen-deiturak: Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

perlesiatu

Autoa utzi eta eraikin arranditsura hurbiltzen ari zela, Ane **perlesiatu**rik geratu zen.

suspertu

Izenek eta tokiak istorio bortitz eta sinesgaitza osatu ahala, iraganeko mamu odoltsuak berpiztu egiten ziren, Aneren ahots dardaratiaz **suspertuta**.

zezeldu

Zezeldu zuen agenteak.

zoko sunda

...eta **zoko sunda** arin bat sumatzen zen...

poto

Anek marihunana landare erraldoi batzuk erdikusi zituen **potoetan**.

erro

Zesar ilearen **erroetaraino** gorritu zen.

kolkoratu

Kafe bero-beroa **kolkoratu** arte ez zuen hotzikara usatu.

habe

Sabaiko **habe** astunek antzinako itsasontzi baten...

kirats sarkor

...erromea zerizkion, **kirats sarkor** bat bezala.

uzkurtu

Arima **uzkurtu**rik arma deskargatu eta zabor poltsara bota zuen.

ebakin

Anek **ebakinak** hartu eta poliki irakurtzen hasi zen.

elizkizun

Bouthierren aldeko hileta **elizkizuna** gaur arratsaldeko...

kausitu

...gorpuak **kausitu** zituen joan den astelehen goizean...

karrika

Kiratsa ohartarazita, **karrikako** 12.zenbakiko bizilagunek Ertzainari deitu zioten.

bortitz

Gertakari **bortitz** batek astindu du Donostiako Gros auzoa.

mendre

Baina ahots hura oso ahula zen, eta haren arrazoiak ezin **mendreagoak**.

erran

Orain, ordea, emakume hori berriki hil dutela **erraten** didazu.

izu

Asmatzen zituen arrazoi zentzuzkoak **izu** olatuen artean itotzen ziren.

gotor

Argumentu **gotorrenak** lausotu egiten ziren zerra odoltsuaren distiraren aldean.

kuzkurtu

Gau hartan ohean **kuzkurtu**rik, ideia lazarria bururatu zitzaion...

Izen-deiturak: Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

lazgarri	Gau hartan ohean kuzkurturik, ideia lazgarria bururatu zitzaien.
zantzu	Gau hartan ohean kuzkurturik, ideia lazgarria bururatu zitzaien: zantzu guztien arabera, ushebtiek Mainerren eta besteen hilketekin zuren zerikusia...
erredura	—Ez didazu sinesten beraz? —galdetu zuen Anek, negarraren erredura eztarrian.
zurbil	Lainoak besarkada zurbil batean biltzen zituen inguruko mendiak, eta sabai heze bat bezala hedatzen zen mendatearen gainean.
iraleku	Noizbehinka, errezel grisean zirrikitu bat zabaldu eta une batez pagadi biluziak eta iraleku zimelduak erdikusten ziren...
zimeldu	Noizbehinka, errezel grisean zirrikitu bat zabaldu eta une batez pagadi biluziak eta iraleku zimelduak erdikusten ziren...
onbera	Telefonoz, polizia erretiratuaren ahots lasaiaren eraginez, aitona onberaren itxurako gizon bat espero zuen Anek.
hezikaitz	Urdintzen hasitako bizar sarea zuen, buruko ile motz-motza bezain hezikaitza .
kako	Haren aurpegi zainduko atalik nabarmenena sudurra zen: luze eta kakoa zen...
kutsu	Haren aurpegi zainduko atalik nabarmenena sudurra zen: luzea eta kakoa zen, eta, begi ilunen laguntzaz, kutsu ironiko batez gozatzen zituen hazpegi latzak.
hazpegiak	Haren aurpegi zainduko atalik nabarmenena sudurra zen: luze eta kakoa zen, eta, begi ilunen laguntzaz, kutsu ironiko batez gozatzen zituen hazpegi latzak.
dzanga	Bukatu zuenean, Anek dzanga hustu zuen bere Coca-Cola.
ahaide	Biziki hunkitu ninduen aitonak nire argazkiak edukitzeak. Nire ahaide hurbilena zen...
gogaitu	Gogaiturik zegoen burua lur azpian gordetzeaz.
asaldatu	Lehen zure aitona, orain Bartzelonako tipo hori... Lasaitu egin behar duzu. Eta nik asaldatu besterik ez zaitut egiten...
herrimin	— Herriminik ez izateko! —azaldu zion Aneri, edalontzia betetzen ziolarik.
mardul	Eguzki zuria zegoen, baina hodei mardulak hurbiltzen ziren itsasotik, armada isil baten antzera.
zotin	—Bai —Aneren ahotsa zotinek itota atera zen.
atxilotu	Hasteko, hainbatetan atxilotua genuen Retolaza andereñoa droga salerosteagatik.
distira	Aristarain tenientearen begi izoztuetan distira bat agertu zen.

Izen-deiturak: Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

zirrikitu	Noizbehinka, errezel grisean zirrikitu bat zabaldu eta une batez pagadi biluziak eta iraleku zimenduak erdikusten ziren...
itsukako hitzordu	—Honek itsukako hitzordu baten itxura kezkarria dauka —barre egin zuen poliziak...
asmakeria	—Normala da ez sinestea —onartu zuen Anek—. Ez dakit. Beharbada, dena nire asmakeria besterik ez da.
hilotza	— Hilotzarena erran behar nion Ertzainari?
aitzakia	Txirrina joz sartzen zen etxeetan, auskalo zer aitzakia erabiliz.
hiltzaile	—Eta Maider? —galdetu zuen Anek—. Uste duzu garai hartako hiltzaile berak hil duela? Hala balitz, aitona errugabea litzakete...
errugabe	—Eta Maider? —galdetu zuen Anek—. Uste duzu garai hartako hiltzaile berak hil duela? Hala balitz, aitona errugabea litzakete...
zimendu	Noizbehinka, errezel grisean zirrikitu bat zabaldu eta une batez pagadi biluziak eta iraleku zimenduak erdikusten ziren...
errezel	Noizbehinka, errezel grisean zirrikitu bat zabaldu eta une batez pagadi biluziak eta iraleku zimenduak erdikusten ziren...
zeruertz	Arnasa lasaitu bitartean, zeruertzera begiratu zuen.
gupidagabe	Mendi bakarti baten magalean egonda, eta eskualde hartako eguraldi gupidagabearen laguntzaz, utzikeriak hondamena zekarren ezinbestean.
kirrinkari	Loperenak aitonaren baserrira eraman zuen bere Patrol kirrinkarian .
lausengu	Lausengu merkeetatik mehatxu erdi ezkutueta igarotzen zen ahotsa bera ere bai.
taxu	...Anek ulertzen zuen aukera aparta zela bere pentsamenduetan taxu apur bat jartzeko, ezagun eta adiskideengandik deskonektatzeko.
ostarte	Barre haiek oso seinale ona iruditu zitzaizkion, ostartetxoak ekaitzaren ostean.
linimentu	Hala ere, linimentuaren usain sarkorrak dilindan zirauen airean.
mesanotxe	Mesanotxearen gainean, edalontzi pitzatu bat eta liburu pare bat.
lastaira	Ane lastaira berriaren gainean eseri zen.
esoterismo	Tira, jende askok zituen gustuko fantasia eta esoterismo kontuak.
bekozkoa ilundu	Maiderre bekozkoa ilundu zuen.

Izen-deiturak: Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

kukutu	..katuak atzera egin eta besaulki baten atzean kukutu zen...
auzapez	Herriko auzapez monsieur Ledoux oso hunkiturik azaldu zen.
agondu	—Aha —asmatu zuen erraten—, ohean agondu bitartean.
melenga	—Ez haserretu, Duhalde andereñoa —Ponsen ahotsak kutsu melenga hartu zuen—.
erretreta	—Geppert komisarioak orain dela bost urte hartu zuen erretreta .
ihartu	Landare ihartu era barazki ustel pila handia lurperatu zuen.
alimaleko	Minutu batzuk geroago, poliziak urdaiazpiko ogitarteko alimaleko bat ahoratzen zuen.
papur	...polizia ohiak ogi papurrak haizatu zituen bizarretik.
ile-xerlo	Eguzkiak belztutako buru soilaren inguruan, ile-xerlo urdin luze batzuk zituen, ardien txima zurixken antzekoak.
tenore	—Alde egiteko tenorea dugu, Xavier.
trufatu	—Arrakasta handiagoa izanen zenuke emakumeekin — trufatu zen Ane—.
jazarpen	Jazarpenak segitu zuen.
porlan	Zuhaitzek osatzen zuten zirkulu itxiaren erdian porlanezko egitura astun bat altxatzen zen, hezetasunak belztua eta leihatila estuz hornitua.
behiala	Behiala , burdinsare astun batez itxita egoten zen, baina ate-orri alimalekoak lurean zeutzan.
jaregin	Polizia handiak besoa lasaitu eta agureari jaregin zion.
mahuka	Malenferrek abituaren mahuka goratu zuen.
xalo	Jakin-min xalo batez begiratu zion Aneri, ate ondora urrundu baitzen negar egitera.
magal	Mendi bakarti baten magalean egonda...
ernegu	Seguruenik, aitak ereindakoa zen ernegu haren zati handi bat.
hauspotu	Beldurra ematen zion mutilaren haserrea hauspotzeak .

Izen-deiturak: Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

piltzar	Praken piltzarren artean, palaren puntak zerbait aurkitu zuen.
meta	Bigarren gelan egur meta handi bat besterik ez zuen ikusi.
uxatu	Ane ahalegindu zen burua kutsatzen zioten susmo beltzak uxatzen .
katramilatu	Are gehiago katramilatu zuen dena aitona babesteagatik.
goraki	Goraki erranik, azalpenak ez zitzaizkion hain sinesgarriak iruditzen.
sarraski	...baita gerra amaieran Erresistentziako zenbait taldek kolabo-en artean egindako sarraskiarena ere...
xukatu	Amaitu zutenean Anek begi gorriak xukatu zituen.
mardul	...baina hodei mardulak hurbiltzen ziren itsasotik, armada isil baten antzera.
kaier	Polizia zaharrak bere kaiertxo a aterata telefono eta helbideak koptatu zituen astiro.
bertsu	Biak ala biak mundutik desagertuak ziren, garai bertsuan gainera.
karrikaratu	... karrikaratu eta bi gela hartu zituzten hurbileko hotel batean.
mukuru	Sainduen irudi margulek mukuru betetzen zituzten bolantearen ondoko bazterrak.
ahapeko	...noizbehinka ushebti txikiari ahapeko hitzak erraten zizkiolarik.
mortu	Goizaldeko karrika mortuek distira iluna egiten zuten.
soil	Anek beheko ibarraren ikuspegia izan zuen zuhaitz soilen artean.
jaiera	Irakasleak jaierezko isiltasun batez irentsi zituen azalpenak.
trufa	Aneren ahotsean ez zegoen trufa arrastorik.
usu	Eskua pasatu zuen besoko ile urdin usuen gainetik.
bakan	Aferaz pentsatzen zuen aldi bakanetan denetariko arrazoi ilunak bururatzen zitzaizkion desertzio misterioitsu hura azaltzeko.
ñabardura	Aire hotza zebilen, eta mendiek grisaren ñabardura guztiekin jatzita jasotzen zuten euriaren fereka.

Izen-deiturak: Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

deliberatu

Ane ikusita, ez zen **deliberatu** hitz egitera...

bermatu

Anek palaren punta lurtean **bermatu** eta kopetako izerdia xukatu zuen.

loki

Ezin zituen begiak izugarrikeria hartatik aldendu. Beldur taupadak sentitzen zituen **lokietan**.

errukarri

...Anek ezin zion kargurik hartu **errukarri** hari.

egurastu

Hotz egiten zuen, leihoa zabaldu baitzuen gela **egurasteko**.

atorra

Txapelak, **atorra** koadrodunak eta larruzko botak.

labore

Goserik batere ez izan arren, katilukada bat kafe eta **labore** apur batzuk irenstera behartu zuen bere burua.

anabasa

Une batez ez zion antzik eman **anabasa** hari. Objektu gehiegi zeuden, eta hautsak amatatu egiten zituen koloreak.

birao

Hortz arteko **biraoa** bota zuen: pantailak zerrenda luze bat azaltzen zuen.

oinaze

Anek bere buruari galdetu zion zergatik ezin zen Zesar bezalako on puska batekin maitemindu, zergatik aukeratu behar zuen beti **oinazearen** bidea.

behaztopa

Liburu pilekin **behaztopatuz**, liburutegitik alde egin zuen lasterka.

hanpatu

Aurkezpen **hanpatuak** aho bete hortz utzi zuen Ane.

gozakaitz

—Segitu aurretik —ohartarazi zuen Anek, **gozakaitz**—, gauza bat utzi nahi dut argi, Pons jauna: ez dut iruditxo saltzeko asmorik.

indarge

Nekaturik sentitzen zen, **indarge**.

lokamuts

Burezurra aurkitu ondorengo egunak amesgaizto baten antzera gogoratzen zituen, baina **lokamuts** hura ere indarra galtzen hasi zen laster.

zetaka

Frantses poliziak eskuak goratu zituen: bi **zetaka** zurbil liburutegi ilunean.

irarri

Zapala eta urre kolorekoa zen, eta eustoki borobilean “120” zenbakia zeukan **irarrita**.

akigarri

Eguzkienea garbitu bitartean, bazekien lan **akigarriak** kaloriak erretzen zituela...

narritatu

Hezetasun sunda latzak sudurra **narritatzen** zien.

haztatu

Anek lurra **haztatu** eta eskuargia topatu zuen.

Izen-deiturak: Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

erpe	Deabruak saguzar hegoak zituzten eta zakil alimalekoak. Denek zerra zorrotzak zeramatzen beren narrasti erpeetan .
soraio	Honek, ordea, soraio jarraitu zuen ushebtiari frantsesez eta latinez hitz egiten.
alor	...zuhaitz soilen artean: baso biluziak eta alor zuri karratuak.
marruka	Anek Moulin irudikatu zuen gela haietan harat-honat, negarrez eta marruka .
zealdoka	Irakaslea nekez zutitu eta zealdoka urundu zen zakarren artean.
funsgabekeria	Funsgabekeriak besterik ez ote ziren bere susmo guztiak?
ahots erlatsa	Anek eskaileretan behera egin zuen. Artean ere Mainerren ahots erlatsa entzuten zuen, katuari errieta eginez.
aztal	Katua besaulkiaren atzetik atera eta Aneren aztalen kontra marruskatu zuen buru iletsua.
bihurkin	Indarra erabiltzea erabaki zuen. Sukaldera joan, eta mailua eta bihurkin handi bat hartuta itzuli zen.
brast	Euritakoa brast gelditu zen. Zer egin ez zekiela, Ane denda bateko erakusleihoari begira geratu zen.
fereka	Hotzikara baten astindu zuen Ane. Udazkenaren fereka .
harpe	Bizi bakarrik ez, gogorarazi zion bere baitako ahots batek, hil ere harpe horretan egin zunan.
kamaina	Bere kamaina zarpailaren ertzean eseri zen. Askoz ere lasaiago ematen zuen.
lauso	Hiritik alde egin eta Naturan bizitzeko gogo lausoa izan zuen Anek betidanik.
lerratu	...frantses polizia belauniko jarri zen sarraila arretaz aztertzeke. Hatza lerratu zuen sarrailatik.
listu	Anek listua irentsi zuen. Negarrez hastear zegoen.
margul	Tiraderan karpeta bakarra zegoen. Beltza zen, zetazko zinta gorri margul batez itxia.
xuxurlatu	—Oso ederra da — xuxurlatu zuen, eta begiak Anerenganantz goratu zituen—.
zorrozki	Zesarrek hatz luzeen artean erabili zuen, alde guztietatik zorrozki begira.
ibar	Hasieran jakiak, garbiketarako produktuak eta egunkaria eroatera joaten zen ibarreko herri nagusira.